



## ESERLEKUEN ZOZKETETARAKO OINARRI OROKORRAK

### I. artikulua. Esparrua.

Honako oinarri hauek oro har aplikatuko dira ATHLETIC CLUBEK dagokion iragarkiaren bidez adierazitako partidetan eserlekuak esleitzeko prozeduretan. Horrelako kasuetan, Athletic Clubek zozketa bat egingo du, eta zozketa horretan parte hartu ahal izango dute parte hartzeko desgaituta ez dauden bazkide guztiek edo bazkide gisa dituzten eskubideak etenda ez dituztenek, baldin eta III. artikuluan adierazitako epean eta bitartekoen bidez izena emateko eskatu badute, eskaeren kopurua eserlekuena baino handiagoa izanez gero.

Zozketaren helburua izango da, sari gisa, adierazitako partidarako dauden eserlekutik bat eskuratzeko eskubidea esleitzea.

Irabazleek ezarritako baldintzetan joan beharko dute partidara.

Partidara sartzeko eskubidearen esleipendun suertatzen den bazkideak ezin izango du izena eman edozein talde eta lehiaketatako sarrerak eta/edo eserlekuak esleitzeko Klubak egiten dituen hurrengo 10 zozketetan, partidara joaten ez bada. Denboraldi berean bigarren aldiz jokabide horri berrekiten bazaio, edozein talde eta lehiaketatako sarrerak eta/edo eserlekuak esleitzeko desgaiakuntza 365 egunez luzatuko da.

**Zozketa honen sariak ezingo dira aldatu edo konpentsatu irabazleak hala eskatu arren.**



# ATHLETIC CLUB

## II. artikulua.- Izen-emate epea.

Eserlekua eskuratu ahal izateko, edo zozketan parte hartzeko, bazkideek CLUBARI adierazi beharko diote, jarraian zehazten den bezala dagokion esku-orriak betez.

Eskaera kopurua eskuragai dauden eserlekuak baino gehiagokoa izango balitz zozketa bat egingo litzateke.

Zozketan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da ATHLETIC CLUBeko bazkide izatea eskabide-orria betetzen den unean.

## III. artikulua. Izen-ematea.

Bazkide bakoitzak bakarrik eskaera bat egin ahal izango du. Eskaera berri bat egingo balu, azken hau baztertu egingo da. Aldi berean, eskaera egin ondoren ez da honen baliogabetzerik edo aldaketarik onartuko, Cluben aurrean ongi akreditaturik dagoen behar beste arrazoiren bat izan ezik, bakarrik izena emateko epea amaitu aurretik eginez.

Bazkide bakoitzak gehienez eserleku bat eskuratu ahal izango du bere izenean.

Behin inskribatzeko epea itxita, eta zozketa baino lehen, inskribatutako bazkide bakoitzari zozketarako zenbaki bat emango zaio.

Zozketarako zenbakiak elkarren segidan esleituko dira eta Bazkide Kode txikienetik handienera emango dira, taldeko inskripzioak izan ezik, horietan guztien erreferentzia-zenbakia inskripzioa egiten duen bazkidearen kodea izango baita.

Eserleku-eskaera bateratuak egitea onartuko da, gehienez ere lau bazkide eserleku-eskaera bakoitzeko. Inprimaki berean izena ematen duen bazkide bakoitzari beste zozketa-zenbaki bat esleituko zaio. Inprimaki beraren bidez izena ematen duten bazkideen zozketa-zenbakiak elkarren segidakoak izango dira. Horretarako, izena ematen duen bazkidearen kodea (taldeko burua) hartuko da erreferentziazat, eta





# ATHLETIC CLUB

gainerakoak inprimakiko inskripzio-ordenaren arabera sailkatuko dira.

Partidarako eserlekuak eskatzeko izen-ematea eksklusiboki hurrengo bide hau erabiliz egingo da: <http://www.athletic-club.eus> web orrian dagoen eserlekuak eskatzeko orria betez.

Inskripzioa egiteko, bazkide kodea eta PIN zenbakia ematea ezinbestekoa izango da.

Izen-ematearen baieztapena posta elektronikoki bidez jakinaraziko da, bazkideak eskabide-orrian harremanetarako eman dituen datuak erabiliz.

Inola ere, pertsona berak ezingo du eserleku bat baino gehiagoren eskubiderik jaso zozketan. Esleipenduna izatea pertsonala eta transferiezina izango da.

CLUBek zozketaren irabazlearekin harremanetan jartzea lortuko ez balu edo honek ez balu onartuko eserlekua izateko eskubidea gauzatzea zehazten diren epe eta baldintzetan, eserleku eskaera hori esleitu gabetzat emango da, eta jaso gabeko eserlekuak hurrengo artikuluetan zehazten den moduan erabiliko dira.

## IV. artikulua.- Zozketa egiteko data.

Zozketa, beharrezkoa izatekotan, ATHLETIC CLUBen instalazioetan egingo da, kasu bakoitzean Klubak [www.athletic-club.eus](http://www.athletic-club.eus) webgunearen bitartez iragarritako datan.

Zozketa modu misto baten bidez egingo da, loteria-ontzi eta ausazko aukera prozesuetan behar bezala onetsitako informatika-programaren bitartez, Athletic Clubeko egoitzan, Ibaigane Jauregian, Mazarredo Zumarkalea 23 (48009) Bilbo. Bazkideek bertaratu ahal izateko aurrez izena eman beharko dute eta Klubeko baieztapen idatzia jaso, egoitzan toki mugatua baitago. Eskaerak lekua betetzeko baino gehiago izanez gero, plazak egokituko dira izen-ematearen ordena jarraituz. Zozketa ikusi nahi duten bazkideek e-posta bidali beharko dute [zozketa@athletic-](mailto:zozketa@athletic-club.eus)



# ATHLETIC CLUB

club.eus helbidera zozketara apuntatzeko epea bukatu baino lehen.

Justifikatutako arrazoiren batengatik zozketa ezin bada lehen adierazitako egunear egin, aurreikusitako egunaren hurrengo egun baliodunear egingo da.

## V. artikulua. Zozketa egiteko prozedura

Zozketa egin baino lehenago, ATHLETIC CLUBek bere web orrian eskatutako baldintzak betetzen dituzten eta, beraz, eserlekuak eskuratzeko aukera duten bazkideen zerrenda jarriko du. Zerrendan honako informazio hau azalduko da:

- Bazkide kodea eta bazkide kode bakoitzari esleitutako zozketarako zenbakia.

Aipaturiko partidarako eserleku bat eskatzen duten bazkideek baimena ematen dute aurreko paragrafoan adierazitako datuak argitaratzeko, Athletic Clubeko web orrian. Baimen horrek izaera pertsonaleko datuak lagatzeko baimenaren eraginkortasuna du, Datu Pertsonalen Babesari buruzko legerian aurreikusitakoa.

### Zozketaren prozedura honako hau izango da:

CLUBek ziurtagiria aurkeztuko du eserleku-eskaeren zerrendarekin batera.

Izena emandako bazkide bakoitzak zozketarako zenbaki bat izango du.

Esleitutako zenbaki guztiak zozketaz arduratuko den informatika-programan sartuko dira, eta aplikatuko da ausazka 9 zenbaki lortzeko. Segidan, loteria-ontzitik zenbaki bat aterako da 1etik 9ra eta horrek zehaztuko du, informatika-programan lortu direnen artean, eta agertu diren ordenean, zein den zenbaki irabazlea. Hau da, loteria-ontzian ateratako zenbakia 4a bada, informatika-programan laugarren irten den zenbakia izango da zenbaki irabazlea.





# ATHLETIC CLUB

Ateratako zenbakia eta hurrengo zenbakiak, gorantz, eskuragai diren eserlekuak bukatu arte izango dira saridunak, eta zenbaki horiekin esleitutako bazkideei partidarako eserleku bana eskuratzeko eskubidea emango zaie. Eserlekuak esleitzerakoan zozketaren azkeneko zenbakira iritsiko balitz, 1. zenbakiarekin jarraituko da, eta beharrezkoa balitz, hurrengoekin.

Adibide gisa: 100 eserleku badira eskuragai eta izena eman duten bazkideak 300 badira, zozketan derrigorrez 300 zenbaki egongo dira. Ateratzen den zenbakia 250 bada, saritutako zenbakiak 250etik 300era izango dira eta 1etik 49ra, biak barne.

## VI. artikulua. Zozketa gauzatzea.

Zozketaren prozesua hasi ondoren, arrazoi teknikoengatik edo CLUBen borondateaz kanpoko arrazoiengatik eteten bada, hasieratik errepikatuko da, ordura arte egindako guztia errepikatuz.

Zozketa IV. artikuluan adierazitako datan burutuko da, eta CLUBek, beharrezkoa balitz, data aldatzeko eskubidea izango du.

## VII. artikulua. Sariak jakinaraztea, gozatzea eta jasotzea.

Zozketa egiten den egunean bertan, CLUBek Klubaren iragarki taulan eta <http://www.athletic-club.eus> web orrian argitaratuko ditu **zozketan saritutako zenbakiak, eta, beraz, partidarako eserleku bat eskuratzeko eskubidea dutenak.**

Eserlekua CLUBek esleituko du, erabilgarri daudenen artean.





## VIII. artikulua.- Soberako eserlekuak

Edozein arrazoiengatik sortzen diren eserleku gehigarriak zozketatik ateratzen den ordenaren arabera banatuko dira, zozketaren azken zenbakia esleituta zuen bazkidearen hurrengo bazkideen artean, eta Klubaren esku geratuko dira azkenean erabili ez diren soberako eserlekuak.

## IX. artikulua.- Eserlekurako eskubidea banaka edo batera saltzeko debekua.

Zozketan bazkideari esleitutako eserlekua ezin izango da saldu, ez eta doan utzi ere, beste objektu batzuk saldu edo entregatzearekin batera, bere kabuz edo hirugarrenen bidez.

Baldintza hau funtsezkoa da zozketan parte hartzeko, eta hori ez betetzeak edo hori egiten saiatzeak berekin ekarriko du bazkidea hiru urtez desgaitzea etorkizunean Clubek zozketatuko dituen sarrerak eta/edo eserlekuak eskuratzeko, eta epe horretan ezin izango da zozketa berrietan izena eman.

Bazkidea izango da eserlekua erabiltzearen edo eramaileak berarekin egiten dituen ekintzen erantzule zuzena, deskribatutako salmenta- edo lagapen-ahalegina barne.

Zozketan parte hartzearekin batera, bazkideak baldintza hauek eta ez betetzearen ondorioak onartzen dituela baieztatzen du, Klubaren aurrean sarrera saltzen ez saiatzeko edo ez saltzeko konpromisoa hartuz, eta baita ere bere doako lagapena ez egiteko beste objektu batzuen salmenta edo ematearekin batera.

## X. Artikulua. Estadiora sartzeko eta bertan egoteko aplikatu beharreko araudia betetzea.

Eserleku bateko partaideek eta onuradunek, prozeduran parte hartzeko funtsezko baldintza gisa, estadioan sartzeko, jokatzeko eta egoteko aplikatu beharreko arau guztiak eta baldintza guztiak errespetatu behar dituzte, UEFA edo Federazio Nazionalak bezalako federazio eta erakunde antolatzaileek ezarritakoak barne, eta



# ATHLETIC CLUB

Athletic Cluben aurrean beren gain hartu behar dute, berariaz, ez-betetzeen kasuan duten erantzukizuna, eta aitortu eta onartu egiten dute Klubak eskubidea duela erakunde eskudunek azken horri ezartzen dizkioten zehapenak jasanarazteko, ez-betetze hori gertatuz gero.

## **XI. artikulua. Oinarriak onartzea.**

Parte-hartzaileek, zozketan parte hartzeagatik, oinarri hauek bere osotasunean eta baldintzarik gabe onartzen dituzte. Era berean, parte hartzaileek ATHLETIC CLUBen irizpidea onartzen dute egon daitekeen edozein arazo konpontzeko.

Sarien esleipena ezin izango da inola ere aurkaratu CLUBek nahi gabe egindako akats batengatik.

CLUBek beretzat gordetzen du oinarri hauek ezeztatzeko, bertan behera uzteko edo aldatzeko ahalmena, bai eta zozketa honen antolaketa eta/edo kudeaketa ere, justifikatuta badago.

## **XII artikulua. Oinarriak argitaratzea.**

Zozketa honen oinarriak argitaratuak dira eta eskuragarri daude Athletic Cluben webgune ofizialean (<http://www.athletic-club.eus>) interesa duen edozein bazkiderentzat.

